

GASTUEN ETA JASOTAKO FAKTUREN KAPITULUA

AURKIBIDEA:

0 – GASTU BERRIA ERREGISTRATZEKO PANTAILA:	1
1 - DATU OROKORRAK:	3
a) Eragiketa mota	3
b) Erregistro mota	4
c) Eragiketa bereziak	6
d) Beste aukera batzuk:	8
2 – IDENTIFIKAZIO-DATUAK:	9
3 – DATU EKONOMIKOAK:	11
a) Datu orokorrak:	11
b) PFEZko datuak:	11
c) BEZko datuak:	13
4 – BEHIN BETIKO ERREGISTROA:	16
5 – BILATU	17

Ohar orokorrak:

1. Araudi honetako 39 bis artikuluan aipatutako zergapekoek eragiketa ekonomikoen liburuko gastuen eta jasotako fakturen kapituluan erregistratu behar dituzte euren jarduera ekonomikoan egiten dituzten gastuak eta faktura, aduana-agiria edo beste frogagiriren bat jasotzea eragiten duten eragiketa guztiak. (39 quater artikulua)

0 – GASTU BERRIA ERREGISTRATZEKO PANTAILA:

Menu nagusitik kapitulu honetan lehenengoz sartzen denean:

Aitortzailea	00000010X / GARCIA GARCIA ROMULO
Jarduerak	1
Eragiketa ekonomikoak	1
Lotutako edo inbertsio ondasunen kapitulua	1
Sarreraren eta egindako fakturen kapitulua	
Gastuen eta jasotako fakturen kapitulua	
Fondoaren horniduren eta ordezkoren kapitulua	
Erkidego barneko zenbait eragiketaren kapitulua	

Laguntza Kontsulta Liburua Inprimatu Itxi Programatik irten

pantaila hau agertuko da:

1 - DATU OROKORRAK:

Pantailak atal honetan zer erregistratuko den zehaztu behar da: eragiketa, euskarria eta, eragiketa berezia izanez gero, zein den.

Hautapenak **bata bestearen atzetik** egin behar dira: lehenengo eragiketa mota, gero erregistro mota eta azkenik, erregistroak eskatzen badu, "Eragiketa bereziak" eremua bete.


Programak mota hauek dauzka lehenetsita:

Eragiketa Mota: A (Faktura duten gastuak/erosketak/bestelako eragiketak)

Erregistro Mota: A (faktura)

Kasu batzuetan "(zehaztu gabe)" agertuko da lehenetsita; beste aukerak aplikatu ezin direnean hautatu behar da eremua hutsik uzteko.

a) Eragiketa mota




- A: Faktura duten gastuak/erosketak/bestelako eragiketak: faktura daukan jardueraren gastu bat PFEZerako erregistratzeko, faktura jasota dagoela.
- B: Fakturarik behar ez duten gastuak/erosketak/bestelako eragiketak (adibidez, nomina): BEZerako faktura behar ez duen jardueraren gastu bat erregistratzeko. Adibideak: nominen gastua; maileguen korrituak.

- C: Jaso gabe dagoen gastuak/erosketak/bestelako eragiketak eta faktura: frogagiria daukan jardueraren gastu bat PFEZerako erregistratzeko, hura jaso gabe dagoela.
- D: Aurretik erregistratutako gastuari/bestelako eragiketei buruz jasotako faktura: PFEZko erregistratuta dagoen (C atala) gastu baten agiri-euskarria erregistratzeko.
- E: "PFEZko kobrantzak eta ordainketak" irizpideari helduta ordaindutako zenbatekoa: PFEZen ordainketarako jardueraren etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespen erraztuaren araubideko kobrantza eta ordainketen irizpidea aplikatzen bada, lehendik erregistratuta dagoen gastu bat erregistratzeko.
- F: Ordainketak (BEZaren kutzako irizpidea): BEZaren kutxa irizpidearen araubide berezian egonez gero, ordainketa bat erregistratzeko.
- G: Lotutako edo inbertsio ondasunen faktura: inbertsio-ondasun baten eskuraketa edo hobekuntzaren agiri-euskarria erregistratzeko.
- H: PFEZko gastu kengarririk ez dakarren faktura: PFEZko kengarria ez den gastu baten agiri-euskarria erregistratzeko (nahitaez erregistratu behar da, faktura edo ordainagiria jasota dago eta).

b) Erregistro mota

Kasu guztietan ez dira agertuko beheko pantailako eremu guztiak: eragiketa motaren eremuan jartzen denaren arabera izango dira.



- A: Faktura: erregistratuko den fakturan zerga-tasa bat bakarrik dago, faktura jarduera bati bakarrik dagokio, bai eta ondasun bati bakarrik ere, eta KPOko kontu bakar bateko elementuak daude.

- **B: Hainbat zerga-tasa/jarduera/KPO/ondasun:** hainbat zerga-tasa dauzkan faktura bat erregistratzeko, edo hainbat jarduerari edo ondasuni dagozkien gastu baten faktura, edo KPOko hainbat kontutan erregistratu beharreko elementuak dauzkan faktura. Kasu hauetan pantailan beste atal bat agertuko da behar diren datuak sartzeko:

Batetik bestera joan dateke behaldean eskuinean dauden botoien bitartez:



Zerga-tasa, KPOko kontu, ondasun edo jarduera bakoitzeko ondoko pantaila

hau bete behar da botoia klikatu ondoren:



Pantaila honetan erregistro arrunt bakoitzean behar diren datu ekonomikoak sartu behar dira.

*** Joan 3. atalera – DATU EKONOMIKOAK ***

- C: Laburpen-idazpena: laburpen-idazpena erregistratzeko (39 quarter art., 4. idatz-zatia)
- E: Faktura zuzentzailea: erregistratutako faktura bat zuzenduko duen faktura bat erregistratzeko.
- F: Bestelako ordainagiria (BEZri buruzko Foru Arauko 97.artikuluko 1.4 idatz-zatia): BEZri buruzko Foru Arauko 97.1.4 artikuluko kasuak soilik.
- G: Faktura sinplifikatua ordeztzen duen faktura osoa: lehenik faktura sinplifikatua erregistratutako faktura orain osoa erregistratzeko.

c) Eragiketa bereziak

	(zehaztu gabe)
F	Bidaiariaren intereseko erosketak. Bidaia-agentzien araubide berezia
H	Inbertsioko urrearen araubide berezia
I	Subjektu pasiboaren inbertsioa
L	IGICko txikizkarietarako egindako erosketak
P	Ondasunen erkidegoen ateko eskuraketak
Q	Ondasun erabilien araubide berezia
R	Negozio-lokala alokatzeko eragiketak
S	Diru-laguntzak, laguntzak
U	Aseguru eragiketak
W	Ekoizpenaren, Zerbitzuen eta Inportazioaren gaineko Zergari lotutako eragiketak: Ceuta eta Melilla
X	Nekazaritza-konpentsazioen ordainagiria bidaltzea

- - : Zehaztu gabe: honen bidez eremua hutsik uzten da. Gako hau hautatu behar da erregistratu nahi dena ondoko eragiketa berezietakoa ez denean.
- **F. Bidaiariaren intereseko erosketak. Bidaia-agentzien araubide berezia:** BEZaren Bidaia-agentzien araubide bereziari heldutako subjektu pasiboaren bidaiariaren intereseko erosketak erregistratzeko.
- **H. Inbertsioko urrearen araubide berezia:** honen bidez BEZaren inbertsio urrearen araubide bereziari heldutako subjektu pasiboaren eragiketak erregistratu behar dira.

- **I. Subjektu pasiboaren inbertsioa:** gako hau BEZaren arau bereziaren salbuespena aplikatu eta subjektu pasiboak inbertsioa egiten duenean hautatu behar da (subjektu pasiboa ondasuna erosten edo zerbitzua jasotzen duena da).
- **L. IGICko txikizkariari egindako eskuraketak:** gako honekin erregistratu behar dira BEZaren arautegian ezarritakoaren arabera Kanarrietan egintzat jotzen diren eragiketak.
- **P. Ondasunen erkidegoen ateko eskuraketak:** gako honekin erregistratu behar dira Europar Batasuneko estatuen arteko ondasun-trukeak, hain zuzen ere BEZerako Batasunaren barruko ondasun-emateak eta ondasun-eskuraketak direnak.
- **Q. Ondasun erabilien araubide berezia:** gako honekin erregistratu behar dira BEZaren ondasun erabilien, arte objektuen, antzinateko objektuen eta bilduma-objektuen araubide bereziari heldutako subjektu pasiboen eragiketak, baldin eta birsaltzaileak hura hautatu badu.
- **R. Negozio-lokala alokatzeko eragiketak:** eragiketa hauek besteetatik berezita erregistratu behar dira; errentariak errentatutako higiezinaren katastroko erreferentzia eta non dagoen jakiteko behar diren datu guztiak eman behar ditu.
- **S. Diru-laguntzak, laguntzak:** gako honekin erregistratu behar dira administrazio publikoetako erakundeek emandako diru-laguntzak, hain zuzen ere ordainketa-agindua ematen den egunean edo ordainketa gertatzen denean egintzat jotzen direnak.
- **U. Aseguru eragiketak:** aseguru-erakundeek egitekoak egiten dituzten pertsona fisikoek aseguru-eragiketak sartu behar dituzte aitorpenean; jasotako prima edo kontraprestazioen zenbatekoa eta ordaindutako kalte-ordainen edo prestazioena zehaztu behar dituzte.
- **W. Ekoizpenaren, Zerbitzuen eta Inportazioaren gaineko Zergari lotutako eragiketak: Ceuta eta Melilla:** gako honekin erregistratu behar dira BEZaren arautegian ezarritakoaren arabera Ceutan edo Melillan egintzat jotzen diren eragiketak.
- **X. Nekazaritza-konpentsazioen ordainagiria bidaltzea:** gako honekin erregistratu behar dira ondasunaren eskualdatzaileari edo zerbitzuaren egileari nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziaren arabera konpentsazioen bat jasotzeko eskubidea eman dioten eragiketak; kontraprestazioen guztirako zenbatekoa adierazi behar da, jasotako edo ordaindutako konpentsazioak gehituta.

d) Beste aukera batzuk:

Datu Drokorrak

Eragiketa mota	A ...	Faktura duten gastuak/erosketak/bestelako eragiketak
Erregistro mota	A ...	Faktura
Eragiketa bereziak	...	

Faktura sinplifikatua
 Erregistro-oharraren zuzenketa

o Faktura sinplifikatua:

Markatu hau faktura erraztua erregistratzeko.

Faktura sinplifikatua A ... Hartailearen IFZ gabe
 Erregistro-oharraren zuzenketa

Hautapena egin ondoren programak "Hartailearen IFZ gabe" ezarriko du; hau honela aldatu daiteke:

Kodea	Deskribzioa
A	Hartailearen IFZ gabe
B	Hartailearen IFZrekin

Ordenatu kodearen arabera
 Ordenatu deskripzioaren arabera


Onartu Utzi

o Erregistro-oharraren zuzenketa:


Markatu hau aurreko idaztohar baten zuzenketa erregistratzeko.

2 – IDENTIFIKAZIO-DATUAK:

- Aitortuaren/hornitzailearen identifikazio-gakoa:



Hautatu egokia.

- Aitortuaren IFZ: laguntzaren bidez, , liburuko eragiketa zahar batean erregistratutako IFZ aurki daiteke.
- Ordezkariaren IFZ
- Herria: kasu honetan ez da behar: “1 – IFZ bati dagokio”
- Bizileku-herrialdearen zerga-identifikazioaren zk.: kasu honetan ez da behar: “1 – IFZ bati dagokio”
- Aitortuaren izen-abizenak edo sozietate-izena: IFZ pertsona fisiko batena bada, hiru eremu bete behar dira, izena eta bi abizen.
- Fakturaren/ordainagiriaren identifikazioa: eremu hau ez da beti bete behar; nahitaez bete behar bada, epigrafea gorrituta agertuko da.
- Bidalketaren data: eremu hau ez da beti bete behar; nahitaez bete behar bada, epigrafea gorrituta agertuko da.
- Eragiketa eguna: ezin da izan bidalketa-dataren ondokoa.

Bi datak egun berekoak badira, nahikoa da batekin; bestela, biak adierazi behar dira.

- Jasoketa data: programak gaurko data ipiniko du lehenetsita, baina alda daiteke fakturaren jasoketa data beste data bat bada.

*** Laburpen-idazpena erregistratu nahi bada, programak nahitaez bete beharreko eremuak pantailaratuko ditu:

(Laburpen-idazpena: 39 quarter 4 artikuluko baldintzak bete behar dira)


Fakturaren/Ordainagiriaren identifikazioa / Gastua	Eragiketa eguna	Jasoketa data	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	03-04-2014	
	Hasierako fakturaren zk.	Azken fakturaren zk.	Faktura metatuen zk.
	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

- Fakturaren/ordainagiriaren identifikazioa.
- Eragiketa eguna: idazpena horren fakturen eguna.
- Jasoketa data: programak gaurko data ipiniko du lehenetsita, baina alda daiteke fakturaren jasoketa data beste data bat bada.
- Hasierako fakturaren zk.: idazpenean sartzen den lehen fakturaren zenbakia.
- Azken fakturaren zk.: idazpenean sartzen den azken fakturaren zenbakia.
- Faktura metatuen zk.: zenbat faktura dauden idazpena honetan.

3 – DATU EKONOMIKOAK:

Programak eskatzen dituen datuak eman behar dira. Aurreko eremuetan egin diren hautapenen arabera hemengo eremu batzuk bete beharko dira eta beste batzuk ez.

a) Datu orokorrak:




The screenshot shows a form titled "Datu ekonomikoak". The first field is labeled "Jarduera" and is highlighted in yellow. To the right of the field are two small icons: a square with three dots and a square with an 'X'.

Gastua zer jarduerari dagokion zehaztu behar da.

Aitortzaileak jarduera bat bakarrik badauka, programak hori ipiniko du lehenetsita.

b) PFEZko datuak:



The screenshot shows a form titled "PFEZko datuak". It contains several fields and checkboxes:

- KPO kontua**: A text input field, highlighted in yellow, with a square icon containing three dots and a square icon with an 'X' to its right.
- Ondasuna**: A text input field, highlighted in yellow, with a square icon containing three dots and a square icon with an 'X' to its right.
- Ondasunaren ohar-zk.**: A text input field, highlighted in yellow.
- Gastu zenbatekoa**: A text input field, highlighted in yellow, with a checkbox labeled "Gastu zenbatekoa hutsik" to its right.
- PFEZren ordainketako irizp.**: A text input field, highlighted in yellow, with a square icon containing three dots to its right.
- Ordaindu gabeko zbtkoa**: A text input field, highlighted in yellow.
- PFEZn zenbatu beharreko gastua**: A text input field, highlighted in yellow, with a checkbox labeled "Balioa eskuz idatzi" to its right.


- Kontabilitate Plan Orokorreko kontua

Informazioa behar denean, programak Kontabilitate Plan Orokorreko 6. taldeko kontuen zerrenda pantailaratuko du. Etekin garbia kalkulatzeko aplikatzen den araubidearen arabera araubide bakoitzean kontu batzuk ez dira baliagarri egongo. Beste kontu-sistema bat eduki arren, zergapekoak programak ematen duena erabili behar du.

- Ondasuna: (programak eskatuz gero, erregistratzen den gastuaren arabera) erregistratutako ondasunetatik gastua zeinek eragin duen zehaztu behar da.
- Ondasunaren ohar-zk.: automatikoki agertuko da ondasun horren erregistroari programak emandako zenbakia.

- Gastu zenbatekoa: ekitaldiko gastutzat hartuko den zenbatekoa (BEZ kengarria bada, fakturaren zerga-oinarria izango da; kengarria ez bada, fakturaren guztirako zenbatekoa; PFEZen kobrantza eta ordainketen irizpidea hautatzen bada, ordaindutako zenbatekoa).
- Gastu zenbatekoa hutsik: gastu zenbatekoa hutsik utzi nahi badugu, hemen markatu behar dugu; bestela, programak eskatuko digu zenbateko bat.

*** Erregistro motaren eremuan "B: Hainbat zerga-tasa/jarduera/KPO kontu/ondasun" jarri bada, programak lauki honetako kopurua kalkulatzeko aukera emango du:

Gastu zenbatekoa 

Gastuen zenbatekoa kalkulatu

Programak lotura- eta egozpen-portzentaiak aplikatzea nahi baduzu, idatzi portzentai horiek eta hori aplikatzeko fakturaren zenbateko osoa (BEZik gabe)

Fakturaren zenbateko osoa (BEZrik gabe)	PFEZrako egozp. %	PFEZko ond. zerg. %
<input style="width: 90%;" type="text"/>	<input style="width: 90%;" type="text"/>	<input style="width: 90%;" type="text"/>
Gastuen zenbatekoa		
<input style="width: 90%;" type="text"/>		

Datu hauek eman behar dira: gastuaren guztirako zenbatekoa, PFEZeko egozketa-ehunekoa eta jarduera, KPO kontu edo ondasun bati egozteko ehunekoa.

- PFEZren ordainketako irizpidea: Lau hauek PFEZen ordainketarako kobrantza eta ordainketen irizpideari heldu diotenen erabili behar dituzte. Eragiketa bakoitzarentzat hautatu behar izango dugu kasu horretan irizpide hau erabiltzen ari den ala ez (faktura ordaindu egin dugun ala ez).

Bizkaiko Foru Aldundia

N	EZ
S	BAI

Ordenatu kodearen arabera
 Ordenatu deskripzioaren arabera

Kasu hauetan erregistroa bi unetan egin daiteke:

- 1- Gastua erregistratzen denean, ordainketa egin gabe dagoela. Honelakoetan datu hauek eman behar dira: ordaindu gabeko zenbatekoa, PFEZerako konputatuko den gastua eta “Balioa eskuz idatzi”.
 - 2- Ordainketa erregistratzen denean, nahiz eta ordaindu gabeko zenbatekoaren agiria lehendik erregistratuta egon. Honelakoetan eremu hauek blokeatuta daude eta gastuaren zenbatekoa ordaindutakoa izango da, erregistro honetan gastua dena.
- Ordaindu gabeko zenbatekoa: eragiketaren gakoa “1” bada, ordaintzeko zenbat dagoen zehaztu behar da.
 - PFEZen zenbatu beharreko gastua: “Gastuaren zenbatekoa” eremukori “Ordaindu gabeko zenbatekoa” eremukoa kenduta geratzen den kopurua; programak berez kalkulatu du.
 - Balioa eskuz idatzi: aurreko laukiko balioa eskuz aldatu nahi bada.


c) BEZko datuak:

Ez dugu beti izango behar datu hauek satu, eragiketaren arabera edo BEZren araubideren arabera. Adibidez, Baliokidetasun-errekargoan bagoaude, datu hauek itzita izango dira (kolore horian).

The screenshot shows a software interface for entering BEZ (Value Added Tax) data. The interface is in Spanish and contains several input fields and checkboxes. Fields for 'BEZ Zerga Oinarria', 'BEZ tasa', 'Jasandako BEZ kuota', and 'Faktura Zenbatekoa' are highlighted in yellow. There are also checkboxes for 'Zerga Oinarria hutsik', 'Kuota kengarria eskuz idatzi', and 'Kutxako irizpidearen araubide berezia aplikatu beharreko eragiketarako baino ez'. A table with columns 'Kutxako irizpideari (BEZ) lotutako eragiketa', 'Ordaindutako zbtkoa', and 'Ordainketaren data' is also visible, with some cells highlighted in yellow.

- BEZ zerga oinarria: fakturan agertzen dena.

- Zerga oinarria hutsik: zerga oinarria zenbatekoa hutsik utzi nahi badugu, hemen markatu behar dugu; bestela, programak eskatuko digu zenbateko bat.
- BEZ tasa: tasa egokia hautatu behar da.



- Jasandako BEZ kuota: eremu hau programak kalkulatzen du, kasu honetan izan ezik: faktura erraztua bada (hartzailearen identifikaziorik ez), eskuz sartu behar da.
- Faktura zenbatekoa: eremu hau programak kalkulatzen du (oinarria + jasandako kuota), kasu honetan izan ezik: faktura erraztua bada (hartzailearen identifikaziorik ez), eskuz sartu behar da.
- BEZ kuota ez kengarria: programak berez kalkulatuko du Jasandako kuota – BEZaren kuota kengarria kenketa eginez.
- BEZ kuota kengarria: programak jasanda kuota osoa agertuko du berez; eragiketa guztiak BEZetik salbuetsita daudela markatu bada, programan agertuko da BEZaren kuota osoa ez dela kengarria.

Ondokoaren bidez zenbatekoa eskuz ezar daiteke:

Kuota kengarria eskuz idatzi

*** BEZaren Kutxako Irizpidearen araubide berezia:

Atal hau bi kasu hauetan bete behar da: BEZaren kutxa irizpidearen araubide berezian egonez gero; ordaindu ez zaion hornitzailea araubide horretan egonez gero.

- Eragiketa BEZaren kutxa irizpideari helduta:

Kutxako irizpideari (BEZ) lotutako eragiketa

[Yellow field] [...]

Eragiketa hau ordaindu gabe badago esan behar dugu:

Ordaindu gabea

N	EZ
S	BAI

Ordenatu kodearen arabera
 Ordenatu deskripzioaren arabera

[Ondartu] [Utzi]

Geroago, ordainketa egiten denean, osoa edo zatikatua, honelako erregistro bat (edo batzuk) egin behar izango dugu:

Eragiketa Mota: F – Ordainketak (BEZaren kutxako irizpidea)

Eta datu hauek bete behar izango ditugu:

Kutxako irizpidearen araubide berezia aplikatu beharreko eragiketarako baino ez

Kutxako irizpideari (BEZ) lotutako eragiketa Ordaindutako zbtkoa Ordainketaren data

[Yellow field] [...] [Yellow field] [Yellow field]

Ordainera Deskripzioa

[Yellow field] [...] [Yellow field]

- Ordaindutako zenbatekoa
- Ordainketaren data
- Ordainera

Ordainera

A	Banku kontua
B	Txekea
C	Beste batzuk


Ordenatu kodearen arabera
 Ordenatu deskripzioaren arabera

[Ondartu] [Utzi]


- Deskripzioa

4 – BEHIN BETIKO ERREGISTROA:

Pantaila bete ahal izateko eta programak gastua erregistratu ahal izateko, kasu egin behar zaie behealdean ezkerrean agertzen diren mezuei:



Mezuak klikatu eta zerrenda bat agertuko da:



Erregistroan gertatu diren erroreak dira; nahitaezko eremuetako erroreak zuzendu behar dira erregistroa behar bezala burutzeko.

5 - BILATU

Gastuen eta jasotako fakturen kapituluaren pantailaren behealdean, hauxe daukagu:



- Bilatu: honen bidez sartutako erregistro bat hauta daiteke.

The screenshot shows a search window titled "Identifikazio-datuak bilatu". It features a search form with the following fields:

- Bilaketa fitxategia** (Search file type)
- Identifikatzailea** (Identifier)
- Izena edo sozietatearen** (Name or company)
- Fakturaren identifikazioa** (Invoice identification)

Each field has a search icon (magnifying glass) and a clear icon (X). A search icon is also present to the right of the form.

Below the form is a table with the following columns:

Liburua	Identifikatzailea	Izena edo sozietatearen izena +	Faktura id.	Ohar-zk.
Gastuak/Egindako fakturak				
Sarrerak/Egindako fakturak				
Erkidego barmeko zenbait erag...				
Fondoan homidurak eta ordez...				